

Errepideetan eta horietako babesguneetan jarduerak baimentzea

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Errepideen jabari publikoko gune eta babesguneetan jarduerak, lanak eta obrak egiteko baimenak ematea

Nork tramitatzen du

- BIDE AZPIEGITURETAKO DPTUA.
- Plangintza eta Ustiaketa Zuzendaritza Nagusia
- Plangintza eta Ustiaketa Unitatea

Harremana

Harremanetarako telefonoa: 943112099

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Errepideetan jarduerak baimentzeko eskaera orria](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskatzailearen datuak
- Egingo den obra, erabilera edo jarduera
- Errepidea eta kilometroa
- Iraupena gutxi gorabehera
- Proiektua (behar baldin bada)
- Beste agiri batzuk (kokapen planoak, egingo diren lanen plano deskriptiboa, Hirigintza Planeamenduaren antolamendu planoak, obretarako udal lizentzia, argazkiak eta abar).

Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

Internet bidezko eskaera

[Bide Azpiegituretako Departamentuaren erregistro elektronikoa](#)

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

Tramitazio elektronikorako oharrak

Eskaera erregistro elektroniaren bidez bidali dezakezu, goian agertzen den formularioa erantsiz

Zuzeneko arretarako bulegoak

Bide Azpiegituretako Departamentuaren harrera [bulego orokorra](#)

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

Hiru hilabete eskabidea eta beharrezko dokumentazio osagarria aurkezten denetik

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

» Jakinarazpena/posta-ziurtagiria

ARAUDIA

[2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea](#), Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Testu Bateratua onartzen duena. III. eta V Tituluak

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

Administrazioaren isiltasuna denean, baimena ukatuzat joko da jarduera errepide edo bideko jabari publikoko guneeetan egin nahi izanez gero. Gainerako kasu guztietan, onartuzat joko da. Jarduera sarbide bat irekitzeari edo berritzeari badagokio, beti ukatuzat joko da.